

## IKASTARO ETA TAILERRETAN IZENA EMATEA

<p><b>a) Oinarri juridikoa</b></p>	<p>DBEO: 6.1.b) Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.</p> <p>DBEO: 6.1.c) Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbearra betetzeko.</p> <p>Barañaingo Udalak antolatzen dituen kultura arloko ikastaro edo jardueretarako sarrera, izen-emate edo matrikulen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala.</p> <p>Barañaingo Udalak antolatzen dituen kirol arloko ikastaro edo jardueretarako sarrera, izen-emate edo matrikulen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala.</p> <p>Barañaingo Udaleko Berdintasun Arloak antolatzen dituen prestakuntza-ikastaroetarako sarrera, izen-emate edo matrikulen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala.</p> <p>Barañaingo Udaleko Gazteriarendako Baliabideen Zentroak antolatzen dituen ikastaro edo jarduera soziokultural nahiz aisialdikoetarako sarrera, izen-emate edo matrikulagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala.</p> <p>Barañaingo Udaleko Gizarte Ongizate Alorrak hirugarren adinekoendako antolatzen dituen ikastaro edo jarduera soziokulturaletarako sarrera, izen-emate edo matrikulagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala.</p> <p>Barañaingo Udaleko Hezkuntza eta Prestakuntza Alorrak antolatzen dituen kirol-jokoetan izen a emateko eta parte hartzeko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala.</p> <p>Barañaingo Udalak antolatu eta udal telezentroan egiten diren prestakuntzako lantegietan ikasteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala.</p>
<p><b>B) Tratamenduaren xedeak</b></p>	<p>Udalak antolatutako ikastaro, lantegi eta antzeko jardueretan izena emateko eskaerak eta bertaratzeak kudeatzea.</p>
<p><b>c) Kolektiboa</b></p>	<p>Eskatzaileak eta beren legezko ordezkariak.</p>
<p><b>d) Datuen kategoriak</b></p>	<p>Izen-abizenak, NAN/IFZ/Nortasun-dokumentua, jaiotza-data, helbidea, sinadura eta telefono-zenbakia.</p> <p>Beste datu-mota batzuk: Bankukoak eta erroldakoak.</p>
<p><b>e) Hartzaileen kategoria</b></p>	<p>Jarduerak antolatzen dituen udal-arloak eta Lagunak Udal Zerbitzua, jarduerak bertan egiten badira.</p>
<p><b>f) Nazioarteko transferentzia</b></p>	<p>Ez dira datuen nazioarteko transferentziak aurreikusten.</p>
<p><b>g) Ezeztatzeko epea</b></p>	<p>Beharrezkoa den bitartean mantenduko dira eskatu ziren garaiko xedeak betetzeko eta xede horretatik zein daturen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak betetzeko. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.</p>
<p><b>h) Segurtasun-neurriak</b></p>	<p>Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren II. eranskinean (Segurtasun neurriak) aurreikusten direnekin; Barañaingo Udalaren datuen babeserako eta informazioaren segurtasunerako politika osatzen duten dokumentuetan azaltzen dira neurriak.</p>
<p><b>i) Entitate arduraduna</b></p>	<p>Barañaingo Udala</p>